

Azillaren 29'an, igandez, ospatu zan urteroko poesi-jai au. Asko etorri jataz itaunka, jai au udabarrian egin bear Iitzatekela-ta. Eta nik erantzun bardña, au da, udazkena beti be udabarria baiño eder, oparo ta kolorez bikaiñagoa dalako; itxaropena da udabarria, etortekoa danaren zerbaít, baiña udazkena, orritan ez-ezik frututan be ugaria; lur-langilleari ereintzak baiño poz beteagoa dakartso udagoienean batzen dauan laboreak naiz igaliak.

Oler-lanari begira, au esan daíkegu: or olerkari mor-doa udabarrian, itxaropenez gaiñezka bear bada. Zer ekarriko dauskue udazkenean? Asko? Gitxi? Ala ezer bez? Udazkenak itza. Larrako Oler-ti-Eguna azaroan jaitu oi dogu geien baten. Erabagita daukagu olantxe. Eta errazoiz ta ondo.

Frututan barriz ez izan dudarik. Udabarriz itxaropentsu agertzen zanak udazkenerako labore sorta ederra. Urtero lez aurtan be, frutua batzean otzarakada dexenteak, iru saillotan, lirikan, poematan eta bertso-mordotan. Leenengoan, iru eskukada, S. Muniategi'ren "Ametsak ume batentzat" jaso eban saria ta Anjel Bidaguren'en "Biziaren arian" (sei amalauko) deritxonak aipamena; onenak naiz arenak, bikain eta teknika osoz maminduak. Bigarrenean, Martin Ugarte'ren "Edestia aztertuaz"-ek irabazi eban leen-saria ta Agustin Beloki'ren "Erru gabeko zigortua"-k aipamena; biak Ian

sarigarriak: Ugarte'k batez be, bizi, sotil ta euskera berotan kantatzen dausku Gernika erre euskuenekoa. Irugarrenean, Agustin Beloki'ren "Belaunak belaunari" edo "Izotz ondorena"-k eroan euskun leen saria ta Paulin Solozabal'en "Artzain ona"-k aipamena. Guztira 27 poesi-lan artu genduzan. Udazken-frutuak, ugari, kolorezko ta ondo umotuak.

Axangiz'ko seme Aurre-Apraz ta Gernika'ko Anjel Bidaguren izan ziran, maiko egiñik, lanak ikusi, aztertu ta bakotxari berea emon eutsoenak.

Amaiak eta erdietako meza nagusi ostean egin genduan sari banaketa, onela: aztertzaileak aurretik auke-ratutako lan sarigarriak, ezker geunkazala, sobre txikiak, sari-emoille, saritu ta enparau guztien aurrean, zabaldu ta, Ian saritzekoak zeintzuenak ziran jakiñik, bakotxari egokion saria eskuratu ta saritu bakotxak bere olerkia, luze naiz labur, irakurri edo kanta egin euskun. Eta, jakiña, txalo otsak, zelán uts-egin?

Ondoren, olerkiakiko alkar-izketa bero ostean, igaz erabagita geunkan omena N. Etxaniz jaunari, urte askotan, ia ogei urtetan emen izan genduan apaiz olerkari, musikalari, euskaltzale bikain-bikaiñari.

Datorren urterako beste bi, omen egiteko bi, Lemoa'ko seme J. B. Eguzkitza ta Donostiar Iñaki Ola-beaga, aukeratu genduzan. Txalogarri da. Ziñez, merezi dauanari gorazarre egitea.

A. O.

AMETSAK UME BATENTZAT

Eskuakaz arrapatuko dogu illargia  
laztanduz aren aurpegi biribil zurbilla,  
an, izar artean, Jaunduriko gautaria,  
aldizka lurra dargizkun zerutar dizpilla.

Gau billutsez urduri ibilliko gara  
aizearen egoetan ta, gautegiaren goitiko,  
sorgindurazko zelai, itxas-arte, ikara,  
Jaungoikoak esku-zabal, maitez ereindakoz.

Ez daitezala ba, begiak, utsik gelditu,  
urrundi urrunean barrenduta, an, urrun,  
ez daitezala argi bako irudiz galdu  
leiza barruan sartuta itunkiro, illun.

Larrosak sortuko dira goiko zabaldian  
lora usaintsu bitxi eder ta, aunitz asko,  
zoragarrizko dirdiramen ikusgarrian  
noranaira begiratu, biotzak alaitzeko.

Udabarriz sorturiko amets -iturriak,  
udaran gero, emoi ederrak burutzeko;  
lora zuri, gorriak inguru gurgarriak,  
laztankiro gero, gogoz biotzeratzeko.

Munduko ondartzaz ondartz, ondarrrik ondar,  
umeak, bein eta barrero, olatuz olatu  
ibilliko dira zorakor ta, lilluratsu,  
irudimeneraturiko baztarrik baztar...

Bidatzi izan. Lau aizetako begiratzez  
biotza erein ta, eder orotara urbilduz  
biziari agur egin Egilleari abestuz  
gau-egun bakoitzarekiko goraberatzez.

Ainbesteko bizi-eratura argigarri  
edota, ainbat uda ta neguteren erdin,  
bizitza ez da beti maitezko ikurrin,  
uste dogun bezin onurakor argugarri.

Bizitzan ota-lar, arantzak be, asko dagoz,  
gorrotozko guda, anai arteko ezbearrak;  
eztabaidazko irrintzi zoli, deadarrak,  
bakoitza bera nagosi izateko gogoz.

Ametsak ondoratzen dauzan itxas alorrean  
ni naroan ontzia, olatu arabera  
dabil, egunen atsegin edo nekepean,  
aizeen joan-etorritik, goizetik gabera.

Ta, olerkariak negar egingo dau negar  
baiña, malko bat itxasora isuriarren,  
zori onez ez da ez, olatupean galtzen,  
uretan dagozalako ainbat itxas-bedar.

Jausi dan negar malkoa, an, onik dakusgu  
itxas-bedar arrunt, orizka baten ganean,  
bildur ikarapean baiña, itxaropentsu  
oraíndik, alako mirari baten aurrean.

S. MUNIATEGI